


ALBERTO IÑURRATEGIEN 14. ZORTZIMILAKOA. Atzo zapaldu zuten Alberto Iñurategik eta Jean Christophe Lafaillek Annapurna (8.091) gailurra. Buelako bidean, 7.300 metroan egin dute bibaka eta gaur hirugarren kanpalekura iristeko asmoa dute.

Hamalauugarrena, dotore

Alberto Iñurategik atzo goizean zapaldu zuen Annapurnako gailurra (8.091 m), falta zuen zortzimilako bakarra. Himalayako bide zail, luze eta gogorrenetako batetik egin zuen, modurik dotoreenean



GAILURRA

Nepalen goizeko 10:00ak jotzeko zeudela jo zuten goia Alberto Iñurategik eta Jean Christophe Lafaille frantziarrak

Ordubete inguru egon ziren gailurrean. Hamalauugarren aldia zuen Albertok zortzimilako baten gailurrean. Hamabitan Felix izan zuen aldamenean, eta atzo ere anaiarentzat izan zen lehen oroimena. Aurrez behin edo behin aipatua zuen Albertok baten eta bestearen birtuteekin ia mendizale bakar bat egiten zutela; atzo ere bat eginda heldu ziren. Iñurategi anaiei ibilbidean, Albertorenean orain, mugarri bat izan da Annapurna, zerrenda baten bukaera. Bukaera bikaina, dotorea. Himalayako biderik gogorrenetako batetik, sekulako igoera egin ondoren.

Igoera azkarra

Atzo goizaldeko 5:00ak inguruan atera ziren Alberto Iñurategi eta Jean Christophe Lafaille Ekialdeko eta Erdiko Annapurna tontorren artean zuten dendatxotik. Erdiko Annapurnako igoera Albertok azaldu zuenez, zaila zegoen oso, eta inguratu egin zuten iparraldetik. Inguratzea bera ere «delikatua» izan zen oso, aretxabaletarren hitzetan. Behin Erdiko Annapurnaren eta Annapurna Nagusiaren arteko lepota iritsita, azken igoera samurragoa izan zela azaldu zuen Albertok.

Ordubete inguru egin zuten gailurrean, Dhaulagiri, Machapuchare eta inguruko beste mendi ederren paisaiaz gozatzin. Gailurreko ordu goiztiarri esker, artean egun ia osoa zuten aurretik jaitsieran ertzari puska handi bat kentzeko. Hala, Nepalen goizeko 11:00ak inguru zirenean hasi ziren egindako bidea desagiten. Ertzetik bueltatzea erabaki zuten, igoerako bide beretik. Izan ere, zalantza zegoen ertzetik bueltatuko zi-

GAILURREKO TESTIGANTZA

«Hemen gasak bixok, kantsaute baina primeran»

Hauxe da Alberto Iñurategik gailurretik walki-talkiearen bidez Jon Lazkanorekin izan duen elkarrizketaren pasarte bat. Komunikazioa ez zen garbia izan eta hitz batzuk jaso gabe daude. Hauxe da testigantza.

- Kanpo Base! Kanpo Base!
- Bai Alberto, txanda?
- Tontorra hi, tontorretik deitzen juau.
- Oso ondo, zorionak, oso goiz igo zarete.

— Bai, hotz eitten jok. Dena ondo juen dok. Hemen gasak bixok kantsaute, baina bestela primeran.

— Oso ondo, oso ondo. Orduan gailurreko giroa ona da eta zuek ere kondizio onetan ailegatu zarete, ezta?

— Bai, (...) pixka bat hotzez, baina gainentzekoan ondo gas eta bueno, orduagatik, uste dut dexente jaitsi ahal izango garela aristan behera.

— Bien, bien, orduan plana aristan behera jarraitzea da, Erdiko Tontorretik pasa barik, ezta?

— Bai, bai, ahalik eta gutxixen igo ta haruntza abiatzera goiazek, ze esan dostie, eztakit, eguraldi aldaketa datorrela, haizea mugidu du eta...

Ramon Olasagasti | **DONOSTIA**

Nepalen goizeko 10:00ak jotzeko zeudela artean, goizaldeko 6:00ak inguru Euskal Herrian, Albertoren deiak ezustean harapatu zituen Annapurna kanpamentu nagusiko lagunak. Erdiko tontorretik espero zuten deia, baina ez, tontor nagusian zeuden Alberto eta Jean Christophe Lafaille sokalagun frantziarra. Uste baino gorago eta uste baino goizago. Igoera gogorra izan zela azaldu zuen Alberto Iñurategik, nekatuta baina ondo zeudela. Annapurnako ekialdeko ertz izugarri luze hura goraino igoa zuten, bide erdia egina.